6. zk.
2000

Aldizkari Berri-Emailea

Nafarroako Eskola Kontseilua

Editorial

ANIZTASUNA AINTZAKOTZAT HARTZEA AUTONOMIA ERKIDEGOETAN ERABILTZEN DIREN NEURRIEI BURUZKO SINTESIA

Charo Reparaz (1) eta Antonio Jaurrieta (2)

Artikulu hau Nafarroako Eskola Kontseiluak antolaturiko zuen Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako Eskola Kontseiluen XI. Topaketetan aurkeztu zen ponentziaren sintesi bat da. Hartan, autonomia erkidegoetan aniztasuna aintzakotzat hartzeko jartzen diren neurriak aztertu ziren. Hemen, berriz, azpimarragarriak diren neurrietako batzuk nabarmendu ditugu. Bestalde, interesik daukan irakurleak XI. Topaketetan sortu zen dokumentaziora jo dezake.

1.-Autonomia erkidegoek legezko arau berariazkoak -LOGSEn abiapuntua dutenak dituzte aniztasuna aintzakotzat hartzeko tresna eragingarri gisa. Arau horiek Nafarroako Eskola Kontseiluak argitaraturiko jatorrizko agirietan kontsultatu daitezke.

2.- Haur eta lehen hezkuntzan, garrantzi berezia du defizit sentsorial, psikiko edo mugimenduzkoekin loturiko hezkuntza premia bereziei nahiz entzumen eta lengoaia arazo berariazkoei erantzun goiztiarra ematea; izan ere, zenbat eta beranduago eman erantzun egokia, orduan eta alde edo bereizketa handiagoa izanen da ikasle horren eta curriculum arruntaren artean. Horren ondorioz, gainera, bereziagoak edo apartekoagoak izan beharko dute hartzen diren neurriek.

3.- LOGSEk ezartzen dituen curriculum neurriak alde batera utzita, autonomia erkidegoek garrantzizko informazioa ematen dute ikasleen aniztasuna aintzakotzat hartzeko erabil daitezkeen estrategia mota guztiei buruz. Horietan halako hurrenkera bat ezartzeko (batzutan gertatzen da izen ezberdinak ematen zaizkiola estrategia berari, eta, alderantziz, izen bera ematen zaiela errealitate ezberdinei), honela sailkatu ditugu: hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei erantzuteko estrategiak eta konpentsazioko estrategiak.

"Editorialaren" egileak, XI. Topaketetan ponentzia azaltzen ari ziren unean.

4.- Bigarren Hezkuntzari dagokionez, garrantzitsuagoak dira aniztasuna aintzakotzat hartzeko hartzen diren neurriak. Etapa horretan, ikasle bakoitzaren historia pertsonal, sozial eta akademikoaren ondorioz gertatu diren ezberdintasunak nabarmenagoak dira, eta hezkuntza erantzun ezberdinak eskatzen dituzte, bai curriculumari dagokionez eta bai antolamenduaren ikuspegitik ere. Batzutan, atzerapen akademikoak eta desfaseak metatzen joan dira, eta horrek ikaslearen bilakaera egokia eragozten dute.

5.-Ikasketetan atzerapen orokorra izan eta, gainera, portaera arazo orokorrak eta hezkuntza ingurunerako moldagabezia dituzten DBHko bigarren hezkuntzako ikasleentzat, Curriculum Egokituko Unitateak (CEU) proposatzen dira. Unitate horiek helburu dituzte ikasketa arlo instrumentaletako ikasketa oinarrizkoak eta funtsezkoak, ikasketa horien globalizazioari eta funtzionaltasunari lehentasuna ematen dion metodologia baten bitartez. Haien xedea da ikasleak egoera normalizatuagoetara pasa daitezen sustatzea. Aukera bat eman nahi zaio ikasleari DBHko talde arrunt batera pasa dadin, edo, bestela, curriculum dibertsifikazioko talde batera, 16 urte

Editoriala

betetzen dituenean, graduatu titulua lor dezan. Hori lortzerik ez badute, ikasle horiek, titulurik gabe eta behar den adinarekin, gizarte bermeko programa batera pasako dira. Programa horiek LOGSEn aurreikusita ez dagoen neurri bat dira, eta horregatik, praktikan, estrategia anitz daude horiek aurrera eramateko.

6.-Azkenik, curriculum dibertsifikazioak batasun handiagoa du autonomia erkidegoetan hura dela-eta dauden proposamenei dagokienez. Neurri horren oinarria da curriculum berariazko bat antolatzea graduatu titulua lortzeko funtsezko erreferentziaren oinarrizko maila gisa. Ulertu beharra dago hori curriculuma egokitzeko era berezi bat dela, eta, besteak beste, arloen ordez eremuak erabiltzen dituela. Eremuak bitarteko egokiak dira oinarrizko eta funtsezko ikasketak integratu eta era globalizatuan irakasteko.

---

(1) Irakasle-ondokoa, Nafarroako Unibertsitateko Hezkuntza Departamentuan. Nafarroako Eskola Kontseiluko kidea.

(2) Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuko burua, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua. Nafarroako Eskola Kontseiluko kidea.

Ikasgela

TUTERAKO "LA ANUNCIATA" IKASTETXEKO ESKOLA-TRUKEA.

Tuterako "La Anunciata" ikastetxeko historia estu loturik dago Erriberako hiri horretako Lourdes auzoari. 1955eko otsailean "La Anunciatako" moja dominikoek auzune -garai hartan "etxe merkeak" izenarekin ezagutzen zen- horretako neskei hezkuntza emateko ikastetxea sortu zutenetik, ia berrogeita hamar urte eta ehunka ikasle pasa dira ikastetxe horretako ikasgeletatik.

Gaur egun, zazpiehun ikasle baino gehiago daude matrikulatuta haur eta lehen hezkuntzan eta derrigorrezko bigarren hezkuntzan. Klaustroan berrogei irakasle daude, eta ikastetxe horretako hezkuntza-proiektua eta ideien baloreak transmititzen jarraitzen dute, gizarteak eskatzen duen prestakuntza eta hezkuntza emateaz gainera.

LOGSEk hezkuntza sisteman gauzatu duen berrikuntzaren ondorioz, ikastetxeak ahalegin handiak egin ditu dauden premiei egokitzeko. Azken garai hauetan, ikastetxea zabaldu da zerbitzu hobeak emateko prestatu da, eta jakintza arlo berriak eta espezialitateak ere indartu eta ikastetxeko hezkuntza-lanean sartu dira. Horri dagokionez, 99-00 ikasturtean lehentasuna eman zaio hizkuntzak irakasteko helburuari, eta horretarako eskola-trukeak hasi ditugu atzerriko ikastetxeekin. Gure helburuetako bat da ikasleak aski motibaturik egotea bi hizkuntza ikasteko: frantsesa eta ingelesa. Ingelesa ikastetxeko eskola curriculumean dago ikasleek sei urte dauzkatenetik, baina ikastetxeak ahaleginak egin ditu bigarren hizkuntza bat ere irakasteko eta horixe izateko ikastetxearen erakusgarrietako bat. Hori dela eta, frantsesa DBHko aukerako ikasgaietako zutabeetako bat da, eta haren irakaskuntza lehen hezkuntzara ere hedatu nahi da.

2000ko urtarrilean eta otsailean, ikastetxeak lehen esperientzia bat egin du gure ikasleak Igon-go "Institution Sainte Elizabeth" ikastetxe frantseseko ikasleekin trukatzeko. Horretarako, Nafarroako Gobernuaren diru laguntza bat izan dugu, hain zuzen ere familiei jarduera horren kostuaren zati bat ordaintzeko.

Aspaldi samarretik zegoen guztion gogoan horrelako esperientzia bat aurrera eramateko aukera, egokiera interesgarria baita hori ikasleek ikasi dutena egoera erreal batean aplikatzeko, hizkuntza bat benetan behar denean ?eta ez soilik ikasgelako egoera hipotetikoetanerabiltzeko. Hori antolatzeko zeuden zailtasunak gaindituta, proiektua gauzatu egin zen, eta joan den urtarrilean, ikasle frantsesen talde bat gure ikastetxean egon zen, gure eskoletan parte hartu zuen, gure ikasleen familiekin bizi izan zen, gure hiria eta inguruak ezagutu zituzten, eta gure neska-mutilen ohiturak eta izaera atsegin eta abegikorra bertatik ikusteko aukera izan zuen. Gero, geu joan ginen haien ikastetxera, eta oso abegi ona egin ziguten.

Oso esperientzia positibo eta aberasgarria izan da ikasleentzat eta ikastetxearentzat. Jarraipena emanen diogu gero, hezkuntza proiektu bateratua eginen baitugu. Orain, azkeneko hartu-emanetan ari gara ikastetxe britainiar batekin, ingelesa ikasten duten ikasleek aukera izan dezaten hizkuntza horretan bizitzeko.

Mª ANGELES RINCON

Tuterako "La Anunciata" Ikastetxeko irakaslea.

Tuterako "La Anunciata" Ikastetxeko ikasleak eta irakasleak.

kasgela

SANTA MARIA LA REAL IKASTETXEA (ANAIA MARISTAK) - IRUNEA

Anaia Maristak 1903an hasi ziren hezkuntza-lanetan Iruñean. Gutxi falta da, bada, Nafarroako hiriburuan daudela ehun urte betetzeko. Milaka mutil -eta duela mende laurden bat neska- nafar pasa dira Maristen ikastetxeetatik, eta gizartearen eta pedagogiaren egokitze alai eta iraunkorraren lekuko izan dira.

Denboraren poderioz nekatzen ez den alaitasun horren lekuko da, hain zuzen ere, egungo ikastetxeak, Santa María la Realek, hurrengo ikasturterako daukan proiektua: Santo Angel de la Guarda ikastetxea barne hartzea. Bi erakinak erabiliz, irakasleen plantillak eta zerbitzuak bateratuz eta, batez ere, familia gehiagori zerbitzua emateko aukerarekin, Maristek etorkizuneko testigantza eman nahi diote Nafarroako gizarteari; izan ere, gure ustez, Maristen pedagogiaren baloreek eta estiloak emaitza positiboak eman dizkio gizarte horri.

Santa María la Real ikastetxeak 90 irakasle inguru izanen ditu. Haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako (lehen zikloa) ikasleak Galizia etorbideko instalazioetan hartuko dituzte; lehen hezkuntzako (bigarren eta hirugarren zikloak), DBHko eta Batxilergoko ikasleak, berriz, Zangoza kaleko erakinean. Baina ez dira ez eraikinak eta ikasleen kopuruak hezkuntza lanaren elementu nagusiak. Maristen pedagogiak -presentzia, apaltasuna, lanerako izpiritua edo familiartekotasuna oinarri duela- gizakiaren ikuspegi kristautik abiatu eta gurasoak, ikasleak eta irakasleak batera biltzen dituen prestakuntza integraleko prozesu gisa finkatu nahi ditu hezkuntzaren aire berriak.

Ikuspegi horretatik, Santa María la Real Ikastetxeko hezkuntza eskaintzak ondoko jarduketa-lerroak ditu ardatz:

• Ikasleentzako hezkuntza-zerbitzuen eskaintza etengabe zabaltzen joatea. Ohikoak diren garraio, eskola-jantoki, laborategi eta liburutegiaz gainera, Maristen ikasleek teknologia berrietako eta hizkuntzetako prestakuntza ere jasotzen dute (ingelesa haur hezkuntzatik irakasten da, trukeak egiten dira Ingalaterrako ikastetxeekin eta lankidetzan ari gara Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialarekin). Halaber, Maristen ikastetxeak tradizio handia du kirol-jardueretan: egun, Club Baloncesto Maristas, Club Balonmano Maristas eta ADEMAR sozietatean gauzatu da kirol prestakuntzan eginiko ahalegina.

• Hezkuntzaren kalitatea indartzea irakasleen etengabeko prestakuntzaren bitartez. Anaia Maristen Instituzioak ematen duen bermearekin, Santa María la Real ikastetxeko irakasle guztiek parte hartu dute azken ikasturte hauetan Prestakuntza Plan zabal batean. Ondokoak izan dira plan horren helburuak: hezkuntzari buruzko legeria berriari buruzko prestakuntza, zuzendarien eta koordinatzaileen prestakuntza berezia, irakasleen prestakuntza LOGSE legearen oinarri psikopedagogikoetan -bai orokorrean eta bai arlo eta gai ezberdinetan haiek daukaten aplikazio zehatzean ere- eta orientazio eta tutoretza eginkizunetarako irakasleen prestakuntza teoriko eta praktikoa. Plan horretatik abiaturik -planak hezkuntza erreformaren barneratze kontrolatu eta eraginkorra bideratu du- Santa María la Real ikastetxeko irakasleek ahaleginak egiten jarraitzen dute urtero beren prestakuntza hobetzen, azpimarra berezia eginez alderdi metodologikoen berrikuntzan.

• Aita-amak hezkuntza eginkizunetan aktiboki inplikatzea. Ikastetxeko kezka funtsezkoetako bat da hori, eta Gurasoen Eskolaren jardueretan adierazten da indar bereziaz, gurasoen elkartearen ahaleginetan bezala; hain zuzen ere, familien prestakuntzari begira eta banakako tutoretzen bitartez. Ezinezkoa da kalitatezko heziketa bat lortzea familiek hezkuntzan laguntzarik eman gabe, parte hartzeko eskaintza urtero-urtero zabaltzen joan da, funtsean gero eta ezagutza eta adostasun handiagoa lortzeko guraso eta irakasleen artean.

Ekintza-lerro hauek bideragarriak dira soilik eskarmentuaren eta gaztetasunaren arteko oreka propio bilatzen duen irakasleen ahaleginari esker; irakasle horiek ilusioz espero dute, hasieran genioen bezala, erakunde honek laster ehungarren urteurrena ospatzea; hain zuzen ere Irunearen eta Nafarroaren historia garaikidearen zati bat baita erakunde hau.

oroa



NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUA IKASTETXEETAKO ESKOLA KONTSEILUEKIN BILTZEKO II JARDUNALDIA

Nafarroako kontseiluak 2000ko apirilaren 8an Iruneako Planetarioan egin zen II. Jardunaldiko ponentziak argitara eman eta bertaratutakoen artean banatu ditu (1).

Informazio gehiago edukitzearren, aipatu ponentzien aurkibideak jaso ditugu:

I - Jose Antonio Jordán irakaslea: *Nolako kulturarteko hezkuntza nahi dugu gure eskolarako?*

Sarrera

1. Zer ulertu behar dugu kulturarteko hezkuntza esaten denean?

2. Gure eskolaren erronka presakoenetako batzuk, kultur aniztasunari dagokionez:

• Haur etorkinak eskolatzea eta Nola lortu eskolan *ghettorik* ez sortzea?

• Zer egin gure eskoletan erabiltzen den *hizkuntza* ezagutzen ez duten ikasle etorkinek hura *ikas dezaten?*

• Zer egin gure hezkuntza sisteman *berandu sartzen*

diren ikasleekin?
• Zer egin beharko litzateke eskolan kulturarteko *curriculum* bat eskaintzeko?
• Nola lortu gutxiengoen *familiekin* komunikazio hobea izatea?
• Kultur aniztasuna dela-eta sortutako auziei konponbidea ematea.

3. Irakasleak eta haien prestakuntza.
• Kultur anitzeko eskola giroetan irakasleek behar dituzten oinarrizko jarrerak.
• Irakasleen prestakuntzarako iradokizunak.

4. Kultur aniztasunari begira egindako hezkuntza politika orokor bati buruzko iradokizun batzuk.
Bibliografia.

II - Jose Mª Giganto Martínez, Turako "Elvira Espaina" Ikastetxe Publikoko zuzendaria: *"Kultur aniztasuna Tuterako "Elvira Espaina" IPan: egungo egoera eta etorkizunerako proposamenak"*:

1. Kultur aniztasuna "Elvira Espaina" IPan.
• Hezkuntzaren historiako hiru mende.
• Interes bereziko Ikastetxe Publiko bat.
• Ikastetxeko egungo dibertsitatea eta kultur aniztasuna.
• Kultur gutxiengoekin lan egiteko lan-lerro nagusiak.

2. Etorkizuneko kuturarteko eskola prestatzen.
• Artazoak eta proposamen praktikoak.
• Hizkuntza intentsiboki irakasteko ikasgelak eta zentroak.
• DBHko curriculuma eta gutxiengoetako ikasleak.
• Lehentasunezko Hezkuntza Arretako ikastetxeak.
• Eskola integrazioa laguntzeko neurriei buruzko plana.
• Foru Dekretua eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei buruzko legeak.

III - Merche Ginel Vielva, Iruneako "La Compasión" ikastetxeko zuzendaria:

1. Ikastetxeari buruzko gure planteamenduaren sarrera.

2. Nor gara.
Entitate titularrak, klaustroak eta eskola kontseiluak aniztasuna eta dibertsitatea direla eta eginiko hautua:
• Kohezkuntza
• HPB (hezkuntza premia bereziak)
• Euskera: A eredua
• Portugesa eta haren kultura
• Ijitoen kultura
• Beste nazionalitate batzuk.

3. Nola erantzuten diogu kultur aniztasunari.
• 1999-2000 ikasturterako helburu orokorra.
• Nola gauzatu helburu hori.

4. Erdietsitakoa eta zailtasunak

5. Proposamenak

Hona parte hartu zutenek lehentasunezko gai gisa 2001eko III. Jardunaldietarako gomendatu zituztenak:
• Elkarbizitza, diziplina, motibazioa ikastetxeetan.
• Elebitasuna/euskara.
• Eskolak gizartean duen egoera.
• LOGSE erreforma. Gogoeta.
Proposamen hauen artean, Nafarroako Eskola Kontseiluak ondokoa hautatu du, komenigarriena eta egokiena delakoan: "Elkarbizitza ikastegietan".

AUTONOMIETAKO ESKOLA KONTSEILUEN ETA ESTATUKO ESKOLA KONTSEILUAREN XI. TOPAKETAK.

• Gaia: "Aniztasuna aintzakotzat hartzea. Kultura anitzeko eskola"
• Irunea, 2000ko maiatzaren 10etik 13ra bitartean.

Nafarroako Eskola Kontseilua Ikastetxeetako Eskola Kontseiluekin Biltzeko II Jardunaldia, 2000ko apirilaren 8an.

• 150 parte hartzaile, tartean autonomia erkidegoetako 12 eskola kontseilutako ordezkariak eta Estatuko Eskola Kontseiluko ordezkariak.
• Hezkuntza eta Kultura kontseilari Jesus Laguna Peña jaun txit argiak eman zion hasiera bilerari, Nafarroako Jauregian harrera eginez parte hartzaileei. Hezkuntzako zuzendari nagusi Santiago Arellano jaunak itxi zituen topaketak.
• Bi ponentzia nagusi aurkeztu ziren:
Lehenbizikoak izenburu hau zuen:
"Aniztasuna aintzakotzat hartzeko neurriak autonomia erkidegoetan". Charo Reparaz andrea eta Antonio Jaurrieta jauna, Nafarroako Eskola Kontseiluko kideak.
Hauxe bigarrenaren izenburua:
"Etorkinen hezkuntza: Europako kulturartekotasunerako erronka bat". Malagako Unibertsitateko Hezkuntzako Teoriako katedradun Jose Manuel Esteve Zarazaga jauna aritu zen ponente.
• Labur bilduz, Eskola kontseiluek aurkeztutako lan eta proposamenei buruzko eztabaidek honako ONDORIO hauek izan zituzten (2)

ANIZTASUNA AINTZAKOTZAT HARTZEA.

Aniztasuna gizateriaren ezaugarri bat da. Aniztasuna aintzakotzat hartzea aukeren berdintasunaren bermea da, eta ezin da ez baztertzailea ez bereizlea izan.

Aniztasuna aintzakotzat hartzeak ikastetxea bere osoan hartzen du.

Aniztasuna aintzakotzat hartzea ikastetxe guztietan eskaini beharreko gauza da, ikastetxearen titulartasuna gorabehera.

Hezkuntza Administrazioak saihestu behar du ikastetxe batzuetan ikasteko zailtasunak, motibazio eza, moldagabezia eta abar duten pertsonen kontzentrazio handiak gertatzea.

Curriculumaren aldaketa oro irakasle guztien baterako eginkizuntzat hartu behar da.

Ikasgelan esku hartzeko estrategia ezberdinak garatu behar dira, talde malguak antolatuz, ikasteko jarduera anitzak eginez, material didaktiko ezberdinak erabiliz eta helburu komunak erdiesteko bide ezberdinak ezarriz.

Aukerako ikasgaien eskaintzak pisu erlatibo garrantzitsua izanen du ordutegian, eta ikasleen beharrizan eta interesen arabera eginen da beti; arlo edo ikasgaien artean eta taldeko tutoretzan gertatzen diren edukien gainjartzea saihestu eginen da.

Foroa



Tutoretzaren eginkizuna aitortu egin behar da, eta hura ikasleak jarraitzeko, laguntzeko eta orientatzeko jarduera nagusia izan dadin erraztu behar da.

Ikastetxeak antolatu behar dira aldi baterako taldekatzeak eta taldekatze malguak ahalbidetzeko moduan, arlokako edo diziplinarteko proiektuak lantzeko aukera emanez, arlo ezberdinei emaniko ordutegiaren antolamenduak zurruntasunik sortu gabe.

Taldeek, era guztietako jendea hartu behar baitute, heterogeneoak izan behar dute, gizartean dagoen aniztasunari dagokion bezala; talde homogeneoak ez dira gomendatzekoak, taldeko elkarrekintzarako gaitasuna dela eta.

Beharrezkoa da ikasleen talde bakoitzean jarduten duten irakasleen taldea murriztea, bidea emanez irakasle berak ikasgai bat baino gehiago irakats dezan.

Hobetzeko proposamen gehienek giza-baliabide espezializatuak jarri eta haiek koordinatzea eskatzen dute: pedagogia terapeutikoko irakasleak, orientatzaileak, baliabide zentroak; baliabide espezializatu horien dotazioak ez du ekarriko, inolaz ere, gainerako irakasleen inhibizioa.

Ikastetxe bakoitzari behar dituen baliabide materialak eta giza-baliabideak ematea, ikasleen aniztasuna aintzakotzat hartzeko formulak garatu ahal izan ditzan, ikastetxeak daukan hezkuntza proiektutik abiatuta.

Eskolatze garaiak irauten duen bitartean aniztasuna aintzakotzat hartzeko curriculum- eta antolamendu-neurri ezberdinen eraginkortasuna eta efizientzia aztertzea.

Aniztasuna aintzakotzat hartzeak ikastetxeen eta ikasleen familien lan koordinatua eskatzen du, bai informaziorako eta bai hezkuntza prozesuetan laguntzazko inplikazioa lortzeko.

Nafarroako Eskola Kontseiluko parte hartzaileak

"KULTURA ANITZEKO ESKOLA".

Kultura anitzeko eskola "aniztasuna aintzakotzat hartzea" prozesu orokorraren zati bat da.

Kultura anitzeko eskola-eredu bat ezartzeak, beste kultura batzuetako ikasleei eta haien familiei zuzendutako ekintza batzuk programatzea ezezik, gure ikasleei zuzendutakoak programatzea ere eskatzen du.

Eskolak ikasleari eta hezkuntza komunitateari ikustarazi behar die herriek kultura ezberdinak dituztela, eta ez zaiela tratu berezia eman behar kultura menderatzaileei eta menderatuei; egokia da, halaber, eskolak giza eskubideen balio unibertsala sendestea, hori baita kultura guztiak integratzeko muga bakarra.

Garrantzitsua da hezkuntza administrazioek, koordinaturik, besteak beste ondoko alderdiak jasoko dituzten arauak ezartzea:

- Harrera eta aldez aurretiko ebaluazioa.
- Arlo honetan harrera- edo ebaluazio-taldeek dauzkaten eskumenak eta eskolatze-batzordeek dauzkatenak.
- Horren inguruan ikastetxeek dauzkaten betebeharrak.
- Eskolatzeko adinean dauden ikasleei hezkuntza-erantzuna emateko eredu orokorrak.
- Helduen hezkuntza-erantzuna.

Irizpideak ezartzea ikasle atzerritarrak ikastetxe jakin batzuetan gehiegi bil ez daitezen, eta behar diren neurriak jartzea era horretako ikastetxeetan ratioak txikiagoak izan daitezen.

Gure hezkuntza sistemaren ezaugarri nagusiei buruzko gida bat argitaratzea, atzerriko ikasleen artean gehien erabiltzen diren hizkuntzetan.

Funts publikoekin mantentzen eta antzeko baliabideak dituzten ikastetxeek laguntza eman beharko diete beren ezaugarri kultural, etniko edo sozialengatik edo legez kanpo egoteagatik laguntza behar duten ikasleei.

Familiek hautatzeko duten eskubidea babestu beharko dute administrazioek; aldi berean, ahaleginak egin beharko dituzte ikastetxe jakin batzuek beren ikasleak zuzenean edo zeharka hauta ez ditzaten.

Herri edo eskola-eremu bereko ikastetxe publikoekin eta ikastetxe itunduekin ados jarririk, arazo sozialak dituzten edo talde kultural nahiz etniko berezietatik datozen ikasleak eskolatzeko sistema ezartzea.

Kulturarteko ikuspegi batetik, ez dirudi egokia denik talde kultural ezberdinetako pertsonak bereizirik eskolatzea.

Udaletan edo eskola-barrutietan etorkinak eta, oro har, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko batzar edo batzordeak sortzea garrantzitsua dela iradoki nahi dugu.

Liburuak edo eskola materialak erosteko hezkuntza administrazioak sustatzen ari diren dotazioek lehentasuna eman beharko liekete ikasle etorkin gehiago hartzen dituzten ikastetxeei.

Eremu, barruti nahiz probintzia jakin bateko lanbidearteko taldeek laguntzako profesional bereziak, atzerriko hizkuntzetako irakasleak, kultur eta hizkuntza bitartekariak, hezitzaile sozialak edo kaleko hezitzaileak, gizarte langileak eta abar izan beharko lituzkete, ikastetxeetara aldi baterako joateko edo ikastetxez ikastetxe lanean aritzeko moduan.

Proposatzen duguna da baliabide zentro batean edo antzeko beste batean nahiz ikastetxe beretan ondokoetarako ikasgela edo unitateak ezartzea: hizkuntza ikastea, portaera eta gure gizarteko trebetasun sozialak edo antzeko baloreak ikastea eta dagokien maila akademikoa zehaztu eta eskola-integrazioaren eredua edo mota zehaztu ahal izatea. Unitate horietan denbora tarte mugatu baterako egonen da ikaslea.

Presakoa da aldi baterako curriculum egokitzapenen eredua prestatu eta argitaratzea, erreferentziako ikasleen hezkuntza premietara egokitzeko, bereziki eskola sistemaren berandu sartzen direnen kasuetan.

Helduen Hezkuntzan, Berezko hizkuntzak ikasteko berariazko programak prestatzea.

Premia handia dago emakume etorkinen prestakuntzarako berariazko jarduerak egiteko, emakumeak kultu-

oroa

ra ugaritan betetzen duen papera dela eta.

Presakoa da gutxiengo etnikoetako ikasleei eta ikasle etorkinei arreta eginen dieten edo egin ahal izanen dieten irakasleak prestatzeko plan zabal bat prestatzea.

Kultura anitzeko eskolako lana ezin dute soilik irakasleek egin. Gizarte hezitzaileek edo gizarte langileek, bitartekari gisa, eginkizun garrantzitsuak dituzte gordeta.

---

(1) Interesa dutenek ondoko liburua azter dezakete Nafarroako Eskola Kontseiluan: "Nafarroako Eskola Kontseilua Ikastetxeetako Eskola Kontseiluekin Biltzeko II Jardunaldia. Eskola Kultura Elkartzailea. Egoera eta proposamenak".

(2) Interesa dutenek XI. Topaketei buruzko ondoko agiriak begira ditzakete Nafarroako Eskola Kontseiluan:

- Autonomia erkidegoen proposamenak.
- Autonomia erkidegoetako eskoletan izaniko esperientziak.

Bi agiri horiek "Aniztasuna aintzakotzat hartzea" eta "Kultura anitzeko eskola" gaiei buruzkoak dira.

- XI. Topaketetako Ponentziak eta Ondorioak; Irunea, 2000.

Nafarroako Eskola Kontseiluko parte hartzaileak

ertson

LORETO VILLAR RUBIO

Loreto gure lankide eta laguna izan zen Nafarroako Eskola Kontseiluaren lanetan. 2000ko abuztuaren 30ean hil zen, gizon-emakumeok bizitzaren osotasunean gunean gaudela uste dugun adin horretan. Sei hilabetez egon zen gaixorik, baina gurekin batera egin zituen gauza ia guztietan bezala, ongi jakin zuen hori ere seriotasunez eta izpiritu positiboaz jasaten, besteoi beharrik gabe minik ez egiteko ahaleginak eginez. Mina, harridura pixka bat eta eskerrona uzi dizkigu, dena bat, aukera eman baitigu harekin batera bizitzeko zenbait lanetan, kezka batzuetan eta barre eta txantxa frankotan.

Loreto bere garaiarekin, gizartearekin eta bere jendearekin konpromisoa hartutako pertsona bat zen, bere semealaben ikastetxeko gurasoen elkarteko kide, ikastetxe horretako eskola kontseiluko kide ere eta "Herrikoa" Nafarroako gurasoen elkarteen federazioko Zuzendaritza Batzarreko kide, Nafarroako Eskola Kontseiluko kide, kontseilu horretako Batzorde Iraunkorreko kide, Barañaingo zinegotzi eta Hezkuntza arloko arduraduna izan zen. Unibertsitatean bigarren karrera bat egiteko gai ere izan zen, bera kezkatzen eta arduratzen zuten gaietan prestakuntza hobea eta osoa edukitzeko.

Nafarroako Eskola Kontseiluko lankide askok faltan botako zaitugu; asko izanen gara harrituko garenak ponentzia ugaritan zu ez ikustearekin, borondatez atxikitzen baitzinen haietako askori; asko izanen gara ere adostasunera iristeko zure gaitasuna eta, askotan, zure sendotasuna gogoratuko dugunak.

Loretok lagun egin digu guztioi helduago izaten, eta horregatik espero dugu askotan, bizitza arruntean eta kontsultarako eta parte hartzeko hezkuntza erakunde honetan, hura bezalako pertsonak aurkitzea. Luzaroan izanen zaitugu gogoan.

Egunkoak



NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUKO WWW ORRIA:

Zenbait aldaketa Nafarroako Eskola Kontseiluko datuetan:

- **Helbidea: Tomás Caballero parkea, 2 (Fuerte del Príncipe I. eraikina), 4. solairua, 7. bulegoa (31006 Irunea)**
- **Telefonoa: 948-154233**
- **Fax zk.: 948-245174**
- **E-mail: consejo.escolar@cfnavarra.es**
- **Interneteko helbidea: http://www.pnte.cfnavarra.es/consejo.escolar.navarra**

A) NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUKO KIDEAK:

Guillermo Herrero Maté jauna: Lehendakaria.
Javier Lacarra Albizu jauna: Idazkaria.
Luis Sarriés Sanz jauna: pertsonalitate ospetsua.
Alejandro Llano Cifuentes jauna: pertsonalitate ospetsua.
Antonio Jaurrieta Ezquerro jauna: Hezkuntza eta Kultura Departamentua
Trinidad Eslava Muruzabal andrea: Hezkuntza eta Kultura Departamentua
Manuel Castillo Molina jauna: Hezkuntza eta Kultura Departamentua
Javier Navallas Rebolé jauna: Hezkuntza eta Kultura Departamentua
José Domingo Server Savall jauna: Hezkuntza eta Kultura Departamentua
Francisco José Flores Pérez jauna: Nafarroako Enpresarioen Konfederazioa (CEN)
Fco. Manuel Osorio Martín jauna: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko kidea
Julián Pina García jauna: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko kidea
Ignacio Mª Iraizoz Zubeldia, jauna: ANEG-FERE
Ricardo J. Sada Aldaz jauna: ANEG-FERE
Pello Mariñelarena Martínez jauna: Nafarroako Ikastolen Elkartea
Coro Gainza Aznárez andrea: U.G.T. sindikatua
Reyes Berruezo Albéniz andrea: NUPeko ordezkaria
Rosario Reparaz Abaitua andrea: Nafarroako Unibertsitateko ordezkaria
Pedro Eza Goyeneche jauna: Parlamento de Navarra (UPN)
Juan Antonio Andión Gastón jauna: Nafarroako Parlamentua (SPN)
Inaki Ochoa de Olza jauna: Langileen Batzordea
Fernando Méndez Velayos jauna: FETE-UGT sindikatua
Francisco Javier Fernández Ayesa jauna: FSIE-SEPNA sindikatua
Javier de Miguel Saenz jauna: Langileen Komisioak sindikatua
José Luis Larrea Cenoz jauna: STEE-EILAS sindikatua
Rosa María Pérez Bardot andrea: CSI-CSIF sindikatua
Isabel Irigoyen Aristu andrea: HERRIKOA Federazioa
Mª Dolores Estaún Yuste andrea: HERRIKOA Federazioa
Ángel Riera Bail jauna: HERRIKOA Federazioa
Miguel Laspalas Pérez jauna: CONCAPA Federazioa
Mª Eugenia Gómez Osorio andrea: CONCAPA Federazioa
María Alfonso Imizcoz andrea: "Cardenal Larraona" Ikastetxeko Ikasleen Elkartea
Javier Marcos Álvarez jauna: "Cardenal Larraona" Ikastetxeko Ikasleen Elkartea

B) EGUN DAUDEN PONENTZIAK:

Eskola Kontseiluaren Berrien Aldizkaria prestatzeko Batzordea
Guillermo Herrero Maté jauna: lehendakaria
Fco. Javier Fdez. Ayesa jauna: FSIE-SEPNA sindikatua
Luis Sarriés Sanz jauna: pertsonalitate ospetsua
Coro Gainza Aznárez andrea: UGT-FETE sindikatua
Isabel Irigoyen Aristu andrea: HERRIKOA Federazioa

Ikaslearen eskubideak eta betebeharrak irizpena prestatzeko ponentzia
María Alfonso Imizcoz andrea: ikasleak
Javier Marcos Álvarez jauna: ikasleak
Mª Isabel Irigoyen andrea: HERRIKOA
José Luis Larrea Cenoz jauna: STEE-EILAS
Coro Gainza Aznárez andrea: FETE-UGT

Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko Txostena, 1999-2000 ikasturtea izenburu duen lana prestatzeko ponentzia

1. taldea: (Arau-Garapena, Hezkuntza Sistema):
Javier Lacarra Albizu jauna: idazkaria
Francisco Javier Fernández Ayesa jauna: FSIE-SEPNA
Mª Eugenia Gómez Osorio andrea: CONCAPA.

2. taldea: (Ikasleak, Giza-baliabideak, Ikastetxeak).
Isabel Irigoyen Aristu andrea: HERRIKOA
Rosa María Pérez Bardot andrea: CSI-CSIF
Ricardo Sada Aldaz jauna: ANEG-FERE

3. taldea: (Euskara, Hezkuntza Administrazioa, Aurrekontuak):
Javier de Miguel Sáez jauna: Langileen Komisioak
Antonio Jaurrieta Ezquerro jauna: Hezkuntza Administrazioa
Guillermo Herrero Maté jauna: lehendakaria

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Memoria, 1999-2000 ikasturtea izenburu duen lana prestatzeko ponentzia
Guillermo Herrero Maté jauna: lehendakaria.
Javier Lacarra jauna: idazkaria

Ponentzia irizpena emateko "Nafarroako eskola egutegia eta jardunaldia" gaiei buruz.
Kideak Osoko Bilkurak urrian izango duen bileran izendatuko dira.

gunko

NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN 2000KO EKAINAREN 8KO OSOKO BILKURAREN LABURPENA:

Lehendakari jaunaren informazio orokorra:

• Nafarroako Parlamentuaren 2000ko maiatzaren 3ko erabakia, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak eta Nafarroako Eskola Kontseiluak ikastetxeetako eskola kontseiluak ezagutarazteko eta sentsibilizatzeko kanpaina bat, ikasleen gurasoen parte hartzea areagotzearren, egiteari buruzkoa. Lehendakari jaunak adierazi du elkarrizketa bat eskatu duela Hezkuntza eta Kultura kontseilariarekin, bi erakundeen jarduketak koordinatzeko eta kanpaina hori egiteak ekarriko lituzkeen ondorio ekonomikoak zehazteko.

• Nafarroako Eskola Kontseilua Ikastetxeetako Eskola Kontseiluekin Biltzeko II Jardunaldian eginiko inkestaren balioespena. Positiboa izan zena azpimarratu da.

• Estatuko Eskola Kontseilutik txosten bat jaso da. Ikasketa Artistikoak egiten ari diren ikasleei Bigarren Hezkuntzako zenbait ikasgai baliokidetzeko Errege Dekretuari buruzkoa da.

• Bertaratutakoei Nafarroako Eskola Kontseiluaren Memoria banatu zaie, bai eta "Ikastetxeetako Autonomia eta eskuartzea" izenburu duen 1/2000 Irizpena ere. Nafarroako hezkuntza sistemari buruzko urteko txostenarekin (1998/1999) atzerapen bat gertatzen ari da maketazio arazoen ondorioz.

• 2000/2001 ikasturterako lan plana: hari buruzko iradokizunak aurkez daitezke.

• Nafarroako eskola sistemari buruzko urteko txostena (1999/2000) prestatzeko datu-bilketaren hasiera.

• Bartzelonako alkateak gonbite bat igorri du "Forum Universal de las Culturas 2004" izenekoaren aurkezpenera joateko. Aurtengo ekainaren 19an izanen da, eta lehendakari jauna da joatekoa.

Batzorde Iraunkorrak proposamena egin zuen batzorde iraunkor batzuk sortzeko, hain zuzen ere Nafarroako Eskola Kontseiluak egin beharreko txostenak arintzeko eta epe laburragoan egin ahal izateko. Horri buruzko eztabaida izan da, eta, finean, onetsi egin da: 18 boto alde, bat ere ez aurka eta bi abstentzio izan dira. Batzorde iraunkor horien osaketak ikasturte bat iraunen du; ikasturtearen bukaeran funtzionamendua aztertuko da eta behar diren neurriak hartuko dira, Nafarroako Eskola Kontseiluaren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamendua aldatzeko aukera aztertzea barne.

"Ikastetxe berriak sortzea" izenburu duen 6/2000 Irizpenaren eztabaida. Onetsi egin da: 17 boto alde, boto bat aurka eta abstentzio bat.

STEE-EILAS sindikatuko José Luis Larrea Cenoz jaunak boto partikular bat aurkeztuko duela iragarri du.

Galderak eta eskariak:

• Nafarroako Ikastolen Federazioko Pello Mariñelarena jaunak idazki bat aurkeztu du Hezkuntza eta Kultura kontseilariari igor dakion. Hartan, Areson gurasoen elkarteak eskola-eremuak erabiltzeko izan dituen arazoak aipatzen ditu; halaber, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusian gertatu diren dimisioak ere aipatzen ditu.

2000KO EKAINAREN 29KO BATZORDE IRAUNKORRAREN LABURPENA:

Lehendakari jaunaren informazio orokorra:

• Nafarroako Eskola Kontseiluan Nafarroako Bigarren Hezkuntzako Institutuen Zuzendarien Elkartearen idazkia jaso da, Elkartearen Estatutuen aldakiarekin batera.

• Probintzia bakarreko Autonomia Erkidegoen Eskola Kontseiluen bilerara joateko gonbidapena jaso da. Batzar hori Santanderren eginen da 2000ko uztailaren 18an. Eskola Kontseiluko hiru kide joanen dira.

• CC.OO. erakunde sindikalak irakaskuntza publikoko irakasleen lan-osasunari buruz igorri duen dossierra jaso du Eskola Kontseiluak.

• EURIDYCEren txostena jaso da, Europako hezkuntza sistemei buruzkoa, derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzarako ematen diren laguntzei eta subentzioei dagokienean.

• Nafarroako Eskolako Kontseiluaren argitalpenen berri eman du Lehendakari jaunak.

• Ikastolen Federazioak sei urtera arteko haurren gaineko Jardunaldi Pedagogikoei buruz igorri duen argitalpena jaso da.

• Bartzelonan, 2000ko ekainaren 19an, Bartzelona 2004 Kulturen Nazioarteko Foroa aurkeztu zen. Forum horretan Lehendakaria egon zen. Ondokoa erabaki da: Foroaren antolatzaileei idazkia bidaltzea, Kontseilu honi informazioa egokia eman diezaion.

Joan den maiatzean egindako *Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako Eskola Kontseiluen XI. Topaketen balantze ekonomikoa* azaldu du Lehendakari jaunak.

Lehendakari jaunak aurtengo urteko lehenengo seihilekoari dagokion *balantze ekonomikoa* azaldu du.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren aurrekontua onetsi da; aurrekontu hori Hezkuntza eta Kultura Departamentuari igorriko zaio, Aurrekontuaren aurreproiektuan sar dadin.

Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko *Urteko Txostenaren aurkibidea, 1999/2000. ikasturteari dagokiona, eman zaie batzarkideei.* Honela sortu dira *lanerako ponentziak:* aurkibidearen 1. eta 2. idatz-zatiak: Javier Lacarra Albizu, Francisco Javier Fernández Ayesa eta José Manuel Contreras Naranjo jauna; 3., 4. eta 5. idatz-zatiak: Loreto Villar Rubio and., Rosa María Pérez Bardot eta Ricardo Sada Aldaz; 6., 7. eta 8. idatz-zatiak: Javier de Miguel Sáez, Antonio Jaurrieta Ezquerro eta Guillermo Herrero Maté.

Urteko Txostena egiteko lan-egutegia 2000/2001. ikasturterako Lan Planean azaltzen da, zein Eguneko Zerrendako hurrengo aztergaia baita.

Lehendakari janak laburkiro azaldu du 2000/2001. ikasturterako Lan Plana, hurrengo Osoko Bilkurak onets dezan utziko dena. Nahi izanez gero, iradokizunak egiteko eskatu zaie batzarkideei, Planean sartzeko.

Erregu-galderak:

• Historiaren Errege Akademiari ondokoa bidal dezala eskatu du De Miguel jaunak: Ikastoletan Historia nola irakasten den jorratu duen txostena, berau zehatz-mehatz aztertze aldera.

2000KO IRAILAREN 19KO BATZORDE IRAUNKORRAREN LABURPENA:

• Aurretik Lehendakariak adierazi du Nafarroako Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorreko kideek atsekabe handia dutela bertako kide Loreto Villar Rubio andrearen heriotza dela eta.

• Villar andrearen ordez Isabel Irigoyen Aristu andrea arituko da, eta bilera honetan bertan jabetu da karguaz.

Lehendakari jaunaren informazio orokorra:

• Aurtengo uztailaren 18an, Lehendakari jauna, Fernández Ayesa jauna eta Idazkaria *Kantabriako Eskola Kontseiluak antolatutako jardunaldira joan ziren.*

Egunkoak

Jardunaldi horren xedea ondokoa zen: Eskola Kontseiluen antolaketaren alorreko zenbait alderdi jorratzea, batzuen eta besteen esperientziak eta jarduerak denon artean jorratuz.

• Interesatuei Nafarroako Eskola Kontseiluaren eta Ikastegietako Eskola Kontseiluen arteko Topaketaren *II. Jardunaldiari dagokion argitalpena* igorri zaie. Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako Eskola Kontseiluen *XI. Topaketei buruzko argitalpena* laster banatuko da.

• *Lehendakariak deialdia jaso du.* 2000ko urriaren 10ean Compostelako Santiagon Eskola Kontseiluetako Lehendakariek *Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako Eskola Kontseiluen XII. Topaketak prestatze aldera eginen duten bilerara joateko.*

• *Kataluniako Eskola Kontseiluaren* gonbidapena jarri da, nahi duen orok azaroaren 18an Terrassan *"Lehen Hezkuntzari"* buruz egingo den Jardunaldira joan dadin.

• *Juan Piñeiro jaunak, Estatuaren Eskola Kontseiluaren Lehendakariak,* bere kargua utzi du, eta *Alfredo Mayorga Manrique jauna* izendatu dute haren ordez.

• *Villatuertako "San Veremundo" ikastetxe publikoaren idazkia eta bisitaldia jaso dira;* ikastegian bertan ez dihardu jendea sartzen dela salatu da idazki horretan. Salatzaileoi Ikuskapen Tekniko eta Zerbitzuen Zerbitzura joteko adierazi zitzaien.

• *Nafarroako Demokraten Elkargunea alderdiak* idazkia bidali dio Kontseiluari. Idazki horretan, iturpeko ikastegietako administrazio eta zerbitzuetako langileriak ordainketa eskuordetuan sartzeko egin duten eskaera azaltzen da.

• Kontseilu honen *Web orrialdeari dagokionez,* Web orrialde hori eskura dago Interneten, eta Nafarroako Gobernuaren orrialdetik zuzeneko lotura lortzeko ahaleginak eginen dira.

• Lehendakariak *hurrengo Osoko Bilkura* planteatu du. Eguna eta gai zerrenda erabaki dira.

Lehendakari jaunak 2000/2001. ikasturterako Urteko Lan Planerako ekarpenak egiteko eskatu die batzarkideei. Urteko Lan Plana Osoko Bilkurari igortzea erabaki da, bidezkoa bada onets dezan; III. jardunaldirako aztergaia den *"Elkarbizitza ikastegietan"* gaia ere sartu da.

Bertaratutakoei *1999-2000 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko Urteko Txostenaren gaineko dokumentazioa eman zaie.* Lan egutegia ezarri da.

NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUA. 2000/2001 URTEETARAKO LAN PLANA

1. helburua: Kontseilua sortzeko legean ezarritako eskumenak betetzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak hezkuntza arloko arauak onesteko garaian.

Aginduzko helburu bat da.

1.1. jarduera: Hezkuntza eta Kultura Departamentuak eskatzen dizkigun irizpen guztiak ematea; Nafarroako Eskola Kontseiluko kide guztiek parte hartzen dutela bermatuz.

1.2. jarduera: Egiaztatzea Kontseiluari kontsulta egiteko prozesua betetzen dela hezkuntza arloko arauak egiteko orduan.

1.3. jarduera: 2001. urterako aurrekontua eta kudeaketa ekonomikoa onestea, eta sei hilabetez behin haren berri ematea Batzorde Iraunkorrari eta Osoko Bilkurari, gara ditzaten.

1.4. jarduera: Legediaren artxiboa gaurkotuta izatea, eta aztergai direnei buruz beharrezkoa eta beteze-

Nafarroako Eskola Kontseiluaren instalazioak.

koa den bibliografia osatzea.

2. helburua: Hezkuntza arloko garrantzizko gaiei buruzko Kontseiluaren ekimenak eta proposamenak garatzea. Helburu garrantzitsua da, eta Nafarroako Eskola Kontseiluak Foru Komunitateko hezkuntza ingurunearekin daukan lotura zehazten du.

Atal honetan, Kontseiluaren ekimenez eginiko irizpenak jaso ditugu, aztertu eta eztabaidatu ondoren; gero, hezkuntza arloko arduradunei eta ukitutako sektoreei igorriko zaizkie.

2.1. jarduera: Kontseiluaren ekimenez irizpen bat egitea "Eskola-eguna eta -egutegia" (2000ko maiatzaren 18ko Osoko Bilkurak hartutako erabakia).

2.2. jarduera: Irizpen bat ematea Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikasleen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen Foru Dekretua aldatzeko aukerari eta egokitasunari buruz.

3. helburua - Nafarroako Eskola Kontseiluan eta hezkuntza komunitatean parte har dadin eta bien arteko komunikazioa mantentzea eta sustatzea.

3.1. jarduera: Tokiko komunikabideetan eta hezkuntza arloko prentsa espezializatuan presentzia erregularra mantentzea.

3.2. jarduera: IDEA/IDEIA hiruhileko buletina argitaratzen jarraitzea (6, 7 eta 8. aleak).

3.3. jarduera: Sektore guztiek, bereziki familiek, ikastetxeetako eskola kontseiluetan parte har dezaten sustatzea, urtero berritu daitezen.

3.4. jarduera: Udaberrian, III. jardunaldia egitea ikastetxeetako eskola kontseiluekin. Hona langaia: *"Elkarbizitza ikastegietan"*

3.5. jarduera: Nafarroako Eskola Kontseiluak eginiko agiri eta txostenak argitaratu eta banatzea.

Adibidez:

• Nafarroako Eskola Kontseiluaren eta Ikastetxeko Eskola Kontseiluen III. Jardunaldiko ponentziak.

• "Eskola-eguna eta -egutegia" gaiari buruz Kontseiluaren ekimenez eginiko txostena.

• Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko txostena, 1999/2000 ikasturtea.

• Nafarroako Eskola Kontseiluaren Memoria, 1999/2000 ikasturtea.

4. helburua - 2000ko abenduaren 31 baino lehen, Nafarroako Hezkuntza Sistemari (unibertsitatez kanpokoa) buruzko 1999-2000 ikasturteko Txostena eta Nafarroako Eskola Kontseiluaren 1999-2000 ikasturteko Memoria prestatzea eta behar den informazioa jasotzea 2001. urteko txostena eta memoria prestatzeko.

Helburu honek garrantzi handia du Kontseiluaren bera-

gunko

ren bizitzarako, eta saiatu behar dugu garrantzitsua ere izan dadin Nafarroako hezkuntza komunitaterako.

4.1. jarduera: Behar den informazioa biltzea Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko 1999-2000 ikasturteko txostena prestatzeko; horretarako, Batzorde Iraunkorraren baitan, lan-talde batzuk eratuko dira lehen zirriborroa egiteko. Epea: 2001eko irailaren 30a baino lehen.

4.2. jarduera: 2001eko urriaren 30a baino lehen, txostenaren lehen zirriborroa igortzea Osoko Bilkurako kide guztiei, zuzenketak aurkez ditzaten. Epea: 2001eko azaroaren 20a. Zuzenketak aztertu eta bigarren zirriborroa prestatzea.

4.3. jarduera: Osoko Bilkura bat egitea Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko 2000/2001 ikasturteko Txostena eztabaidatu eta onesteko. Egutegia: 2001eko abenduaren 20a.

4.4. jarduera: Txostena publiko egitea eta argitaratzea Nafarroako Hezkuntza Administrazioan eta Nafarroako hezkuntza komunitateetan, bai eta gainerako autonomia erkidegoetako eskola kontseiluetan ere, banatzeko. Egutegia: 2001eko martxoaren 30a baino lehen.

4.5. jarduera: Informazioa biltzea Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2000/2001 ikasturteko Memoria egiteko; hasierako zirriborroa egitea; Batzorde Iraunkorrean eta Osoko Bilkuran eztabaidatzea; argitaratu eta banatzea. Egutegia: 2001eko martxoaren 30a.

4.6. jarduera: Informazioa biltzea Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko 2001/2002 ikasturteko Txostena eta Eskola Kontseiluaren 2001/2002 ikasturteko Memoria egiteko.

5. helburua - Estatuko Eskola Kontseiluarekin eta autonomia erkidegoetako eskola kontseiluekin koordina-tzea eta parte hartzea, eta haien funtzionamendua ezagutzea.

Aurten, hamazazpi autonomia erkidegoek arlo honetako transferentziak eskuratu dituzte. Garrantzitsua da koordinatzea, elkarri informatzea eta jarduera edo ekimen bateratuak egitea.

5.1. jarduera: Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako Eskola Kontseiluen XII. Topaketetako lanetan eta eginbeharretan parte hartzea. Galizian eginen dira, eta ondoko gaia izanen dute aztergai:

5.2. jarduera: Komunikazioa eta informazio truke iraunkorrak izatea autonomietako eskola kontseiluekin eta Estatuko Eskola Kontseiluarekin, eta gainerako eskola kontseiluek antolatzen dituzten jardueretara joan eta haietan parte hartzea.

5.3. jarduera: Koordinatzeko eta eztabaidatzeko bileretan parte hartzea, bereziki Estatuko Eskola Kontseiluaren proposamenak aztergai direnean.

5.4. jarduera: Inguruko autonomietako eskola kontseiluetako lehendakariekin bilerak edo/eta bisitaldiak izatea (bereziki berriki izendaturiko Aragoi, Gaztela-Leon, Gaztela-Mantxa, Errioxa eta Kantabriakoekin).

Consejo Escolar de Navarra
Nafarroako Eskola Kontseilua

6. zk.
2000

Idea

Nafarroako Eskola Kontseilua
Aldizkari Berri-Emailea

Editoria

ANIZTASUNA AINTZAKOTZAT HARTZEA AUTONOMIA ERKIDEGOETAN ERABILTZEN DIREN NEURRIEI BURUZKO SINTESIA

Charo Reparaz (1) eta Antonio Jaurrieta (2)

Artikulu hau Nafarroako Eskola Kontseiluak antolaturiko zuen Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako Eskola Kontseiluen XI. Topaketetan aurkeztu zen ponentziaren sintesi bat da. Hartan, autonomia erkidegoetan aniztasuna aintzakotzat hartzeko jartzen diren neurriak aztertu ziren. Hemen, berriz, azpimarragarriak diren neurrietako batzuk nabarmendu ditugu. Bestalde, interesik daukan irakurleak XI. Topaketetan sortu zen dokumentaziora jo dezake.

1.-Autonomia erkidegoek legezko arau berariazkoak -LOGSEn abiapuntua dutenak dituzte aniztasuna aintzakotzat hartzeko tresna eragingarri gisa. Arau horiek Nafarroako Eskola Kontseiluak argitaraturiko jatorrizko agirietan kontsultatu daitezke.

2.- Haur eta lehen hezkuntzan, garrantzi berezia du defizit sentsorial, psikiko edo mugimenduzkoekin loturiko hezkuntza premia bereziei nahiz entzumen eta lengoaia arazo berariazkoei erantzun goiztiarra ematea; izan ere, zenbat eta beranduago eman erantzun egokia, orduan eta alde edo bereizketa handiagoa izanen da ikasle horren eta curriculum arruntaren artean. Horren ondorioz, gainera, bereziagoak edo apartekoagoak izan beharko dute hartzen diren neurriek.

3.- LOGSEk ezartzen dituen curriculum neurriak alde batera utzita, autonomia erkidegoek garrantzizko informazioa ematen dute ikasleen aniztasuna aintzakotzat hartzeko erabil daitezkeen estrategia mota guztiei buruz. Horietan halako hurrenkera bat ezartzeko (batzutan gertatzen da izen ezberdinak ematen zaizkiola estrategia berari, eta, alderantziz, izen bera ematen zaiela errealitate ezberdi-

"Editorialaren" egileak, XI. Topaketetan ponentzia azaltzen ari ziren unean.

nei), honela sailkatu ditugu: hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei erantzuteko estrategiak eta konpentsazioko estrategiak.

4.- Bigarren Hezkuntzari dagokionez, garrantzitsuagoak dira aniztasuna aintzakotzat hartzeko hartzen diren neurriak. Etapa horretan, ikasle bakoitzaren historia pertsonal, sozial eta akademikoaren ondorioz gertatu diren ezberdintasunak nabarmenagoak dira, eta hezkuntza erantzun ezberdinak eskatzen dituzte, bai curriculumari dagokionez eta bai antolamenduaren ikuspegitik ere. Batzutan, atzerapen akademikoak eta desfaseak metatzen joan dira, eta horrek ikaslearen bilakaera egokia eragozten dute.

5.- Ikasketetan atzerapen orokorra izan eta, gainera, portaera arazo orokorrak eta hezkuntza ingurunerako moldagabezia dituzten DBHko bigarren hezkuntzako ikasleentzat, Curriculum Egokituko Unitateak (CEU) proposatzen dira. Unitate horiek helburu dituzte ikasketa arlo instrumentaletako ikasketa oinarrizkoak eta funtsezkoak, ikasketa horien globalizazioari eta funtzionaltasunari lehentasuna ematen dion metodologia baten bitartez. Haien xedea da ikasleak egoera normalizatuagoetara pasa daitezen sustatzea. Aukera bat eman nahi zaio ikasleari DBHko talde arrunt batera pasa dadin, edo, bestela, curriculum dibertsifikazioko talde batera, 16 urte

eskolara